

KOLDAR HUTSA ZARA



aritz
GORROTXATEGI

n a r r a t i b a •

erein

KOLDAR HUTSA ZARA

Narratiba, 89

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2015eko maiatzean

Azalaren diseinua:

Asier Beltza

Maketazioa:

Erein

© Aritz Gorrotxategi

© EREIN. Donostia 2015

ISBN: 978-84-9746-996-8

L. G.: SS-562/2015

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Aritz Gorrotxategi

KOLDAR HUTSA ZARA



erein

– BAT –

Krapulan biltzen ginen sasoi hartan. “Ginen”, diot, eta hala zen, orduan talde moduko bat osatzen genuelako. Ez genuen hitzordurik zehazten, ez ordurik ez lekurik, zuzenean agertzen ginen norberak ahal zuenean. Ez zegoen “goizegi”rik edo “beranduegi”rik, ia beti baitzegoen “gutarretako” norbait mahaietako batean jarrita, garagardo botila eskuan eta berriketarako prest.

Udan, tabernaren kanpo aldeko terrazan egoten ginen, haize epelaren gerizan. Tabernak plaza batera ematen zuen, mugimendu handikoa, eta terrazatik auzoko panorama ezin hobea genuen: jendea erosketak egiten, ogia edo egunkaria besapean, haurrak barrabaskeriak egiten edo zaplaztekoren bat jasotzen, inguruko tabernetako eztabaidak eta topak, eguerdi alderako mozkortuta egoten zen edale kronikoen kofradia zabuka, uso saldo bat hegoak eromenez astintzen, haurren bihurrikerietatik iheska... *Krapularen* atarian itzal ematen ziguten platano batzuk zeuden, tamainaz erdi mailakoak. Zuhaitzen atzetik errepidea igarotzen zen, baina ez zegoen trafikiko gizenegirik. Auzune bizia zen hura, garai batean beharginen auzoa izandakoa, trenbidearen bilakaerarekin lotua. Hiria erdibitzen zuen ibaiaren beste aldean tabako-fabrika

zegoen, eta auzoko behargin askok han lan egiten zuten garai batean, ni jaio baino dezente lehenago. Trenbide azpitik igarotzen zen tunel luzexka igaro behar zuten hara heltzeko. Argazkietatik ezagutzen dut fabrika. Makinen artean agertzen diren langileak emakumezkoak dira, amantala eta kofia moduko bat daramate, eta irribarretsu ageri dira, argazkirako propio. Seguru ez zutela horrenbeste irri egiten kamerarik ez zegoen lanorduetan. Amak kontatu zidanez, gure amonaren lehengusu bat gerente aritu zen fabrikan bolada batez. Loteria egokitu, eta lana utzi zuen. Irabazitako diruaren zati batekin orkestra bati ordaindu zion Sarriegi plazan musika jo zezaten. Hilabetez egon ziren jotzen, eta ardotara ere gonbidatzen omen zuen jendea. Dirua xahutu, eta inprenta-etxe batean hasi zen lanean, aberats garaiak ahaztuta, baina ederki gozatuta. Ez omen zen sariaren apurrik heldu amaren familia-adarrera, ezta karamelu makiladun bat erosteko ere, azpimarratzen zuen amak mingostasun tanta batez.

Urte batzuk geroago, fabrika itxi zuten, eta pixkana, auzoaren fisonomia aldatuz joan zen. Etxeen fatxadak zertzobait txukundu zituzten, behargin askok handik alde egin zuten beste lan baten bila, bizilagun berriak etorri ziren auzora, ezkongabeak, bikote gazteak, gerora guraso bihurtuko zirenak... Hala ere, bazterreko ukitu hori gorde zuen, eta ohikoa zen txikitero edo behargin koadrila handiak kalean batera eta bestera errondan ikustea, baita kantuan ere noiz edo noiz. Gerra garaian “auzo gorria” ere deitzen omen zioten, putak egoten zirelako eta anarkisten erresistentziaren erdigune izan zelako 1936an.

Baina horiek kontu zaharrak dira, tabernan biltzen ginenetako inor jaio gabeko denbora batekoak. Azken batean,

gutako inork ez zuen gerrarik bizi izan. Gehienak 70eko hamarkadan jaioak ginen, Franco hil bezperatan. Hari buruzko kanta ezagun bat abesten genuen txikitan, ipurdiaren kolorearekin eta garbigarri marka ezagun batekin zerikusia zuena. Trantsizio urte haietan ikasi genuen lehen pausoak ematen. Gasteizen bost langile hil eta ehun eta berrogeita hamar zauritu zituzten sasoiari, gu lehen hitzak ahoskatzen ari ginen, oraindik ikatz bidez eta butano bonbonez berotzen ziren alokairuzko etxebizitzetan. Kanpoan nahasmendu politikoa eta zatiketak nagusi ziren bitartean, etxeetan malabarismoak egiten zituzten seme-alaba guztien behar arruntak asetzeko: janaria, arropa, osasuna, heziketa... Urte batzuk beharko ziren gristasun haren geruza astunak arintzen eta aienatzen joateko. Parkeetako jolas-tresnak burdinazkoak ziren, eta zabuak, berriz, pneumatiko erraldoiak. Zauriak sendatzeko merkromina gorria erabiltzen zen iodoaren ordez. Guk ez genuen ez diktadurarik ez gerrarik ezagutu, ez, behintzat, etsaiek aurrez aurre elkar hiltzen duten horietakorik, lubaki, tanke, abiazio eta guzti. Beste borroka mota batzuk ezagutu genituen, gerrilla bidezkoak edo ezkutukoagoak, baina ageriko ondorioak izan zituztenak.

“Ginela” azpimarratu dut arestian; izan ere, taldea aspaldi aienatu da. Ez zen oso talde homogeneoa, ez zen belaunaldi bakarreko kideek osatutakoa. Gehienak gazteak ginen, baina baziren beteranoak ere. Egia esan, ez zuen gehiegi iraun, euskal rockaren txanpinoi aroan sortutako rock talde gehienek bezainbeste, baina han bizi izandakoa, denborari dago-kionez laburra izan arren, ongi gordea geratu zitzaidan go-goan. Ziur asko, denbora gehiago izan dudalako hura

gogoratzeko, eta gauza jakina da urteen joanarekin gauzak mitifikatzeko joera izaten dugula, gauzak puztekoa. Gizaki sentimentalak gara, eta oso gutxi libratzen dira inertzia absurdo horretatik. Leku fisikoetara atxikitzen gara patetiko-tasunez, berezkoa dugu hori. Lehergailu batek espazio fisiko bat suntsi dezake segundo gutxiren buruan: etxe bat, batzoki bat, gaztetxe bat, herriko taberna bat, eliza bat... Espazio mental bat suntsitzeko, ordea, zerbait indartsuagoa behar da. Zer nahi duzue esatea, tarteka besapeko ileak mozten ditugun bezala, komeni da noiz edo noiz memoriako zarakarra kendu eta azala garbitzea ere.

Tabernak bere lekuan jarraitzen du, baina ez da orduko hura. Urte batzuk geroago jabez aldatu zen, eta jabe berriek dekorazioa aldatu zioten, izenarekin batera. Izen berriaren afixa lehen zegoena baino handiagoa, ikusgarriagoa eta kolore biziagokoa izanagatik ere, niri lehengo izena datorkit gogora: *Krapula*. Izena bakarrik ez, gauza asko aldatu eta jende asko sakabanatu da geroztik. Kontuak ateratze aldera, soinean daramagun autoengainu eta miseria kuotari erreparatzea komeni da. Sekula aldatu ez dela dioen pertsona hipokrita hutsa da, eta olio irakin bidezko depilazio tratamendua merezi du. Edo zerbait okerragoa: besaulki batera lotzea eta Pirritx eta Porrotxen diskografia osoa ehun aldiz jarraian entzutera behartua izatea. Hori da infantilizaziotik libratu eta zozo huts ez bihurtzeko modu eraginkor bakarra: gaindosia.

Baina natorren harira. Taldeaz ari nintzen, jada sakabanatuta dagoen taldeaz. Krapulara bertaratzen ziren gehienak auzokoak ziren. Ni salbuespen bat nintzen. Norengandik hasi? Errazagoa izango da hara nola heldu nintzen kontatzea.

Sasoi hartan ikasle nenbilen fakultatean, euskal filologia ikasketak egiten. Hirugarren urtea nuen, ekuatorea, eta ikaskide batek aipatu zidan tabernarena. Idazleak joaten omen ziren bertara. Idazleak, artistak, bohemioak eta antzeko jendea. Ez zela hainbesterako izango pentsatu nuen hasieran, urrutiko intxaurrak hamalau eta abar. Erromantikoegia egia izateko. Seguru jende arruntez betea zegoela, batere xarmarik ga-beak: noizbehinkako zurruteroak; etxera heltzeko ordua luzatzeko asmoz, ukondoa barran ainguratzen zutenak; alferrak; egunkari dosia, hasi eta buka, zainetik sartu behar zutenak; irakurle amorratuak; kuxkuxeroak...

Azkenerako, zalantzak argitzea erabaki nuen. Ukitu bohemio hark erakarri ninduen. Zer galtzen nuen hara joanda... Artean, ipuin eta poema batzuk idatziak nituen, eta liburu bat argitaratzearekin amets egiten nuen. Hasiera ona iruditu zitzaidan. Norbait interesgarria ezagutu nezakeen, kontaktuak zituen norbait.

Ikaskidearekin batera joan nintzen lehen aldiz. Ikaskideak, Iurgi zuen izena, eta Amarako dorrean bizi zen. Handik Krapulara, tarte gutxi zegoen oinez. Etorbide pare bat. Ni, berriz, Grosekoa nintzen, eta apur bat urrutiago geratzen

zitzaidan paraje hura, ibaiaren beste aldean hain zuzen. Ia leku interesgarri guztiak geratzen zitzaizkidan ibaiaren beste bazterrean. Zubiak barrera psikologiko moduko bat ziren hirian. Erdialdean bizi zirentzat zubi haietakoren bat zeharkatzeak hiriaren bihotzetik neurrigabeki urruntzea, herrialde arrotz batera joatea zekarren. Zubiak zeharkatzera ohituta geundenontzat, aldiz, ez zegoen inolako trabarik, ez geografikorik ez psikologikorik, zubiak eta ibaiaren bazterrak gure joan-etorrien zati baitziren. Gehienetan, bizikletaz mugitzen nintzen, bidegorrian enbarazu egiten zuten atso eta agure setati eta erdi gorrei sustoak emanez. Urteak ziren bidegorria egin zutela, baina baldar haiek bidegorria kolonizatzen segitzen zuten, itxurak egiten, bidegorria zapaltzen ari zirela jakingo ez balute bezala. Izurrite moduko bat ziren.

Iurgik ere atsegin zuen idaztea, baina ez zuen bere idatziak erakusteko ohiturarik. Ikasle argia zen, eta nota onak ateratzen zituen gehiegi ahalegindu behar izan gabe. Klaserako lan bat elkarrekin egitea egokitu zitzaigun, eta horri esker egin genuen elkarren ezagutza. Karrerako bigarren urtean izan zen hori. Haren etxean izan ginen lana egiten, eta ondo konektatu genuen. Gure kontuez aritu ginen berriketan, eta apenas eskaini genion tarterik lanari. Hala ere, Iurgik pilak jarri zituen azken momentuan, eta gauza txukun bat ontzea lortu zuen. Oso Ongi bat atera genuen.

Iurgik Krapulako taldeko bat ezagutzen zuen, musikaria: Lukas. Gu baino bost urte zaharragoa zen, eta han-hemenka musika-eskolak emanez ateratzen omen zuen bizimodua. Gitarra-jotzailea zen, eta baita abeslaria ere *Lore Hilak* izeneko taldean. Lukas hura Iurgiren bizilagunaren lehengusua zen,

eta hortik ezagutzen zuten elkar. Iurgiren bizilagunak guk baino bost urte gehiago zituen, eta aitaren etxetresna elektrikoen dendan egiten zuen lan. Trapitxeoan aritzen zen. Auskalo nondik ateratzen zuen merkantzia... Kontakturen bat izango zuen portuko norbaitekin, edo portuko norbait ezagutzen zuen beste norbaitekin. Fakultateko lana egitera joan ginenean, haxix apur bat hartu genion. Geroztik, tarteka joaten ginen harengana, merkantzia eske.

Maiatzean joan nintzen estreinako Krapulara, ikasturtea amaitzeko aste batzuk baino falta ez zirela. Ez zen taberna jendetsuegia, ezta zaratatsuegia ere. Ziur asko, beste ezerk ez zuen gainerako tabernetatik bereizten. Sarrerako atea granate kolorekoa zen, eta areto barruan ohiko gauzak zeuden: egurrezko mahai-aulkiak, mostradore luze bat eskuin aldean, edalontziak eta botilak apaletan lerro-lerro, kea, zerrauts papur batzuk lurrian. Solairu bakarreko aretoa zen, eta dekorazioari dagokionez, hormak posterrez eta egunkari zatiz apainduta zeuden. Egunkari zatietan kirolariak ziren nagusi (txirrindulariak, futbolariak, korrikalariak...), auzoko pertsona ospetsuak, auzoarekin zerikusia zuten albisteak... Zati gehienak zuri-beltzean zeuden, horituak bezain higituak. Haietako batek bitxi samarragatik erakarri zuen nire arreta: egunkariaren argazkian pijama zuri batez jantzitako gizon bat ageri zen, zurrun eta ahoa erabat zabaldua, arnasa etsi-etsian hartzen edo garrasika ari balitz bezala. *Egoera kataleptikoan* zegoen, argazki-buru erdi lausotuak zehazten zuenez. Mago bat omen zen, baina eroetxe batetik ihes egindako gaixo bat

ematen zuen. Antza denez, Kontxako hondartzan lurperatu zuen bere burua, eta handik ordu pare batera onik atera zen hondarretatik. Atzerritar itxura izan arren, tipo xeblebre hura hirian jaioa omen zen.

Lukas hondoko mahai batean jarrita zegoen, tipo bizar luze batekin. Ispilu bat zuten atzean, eta bien bizkarrak ikusten genituen. Garagardo bana edaten ari ziren, muturretik zuzenean zurrupatuz. Lukas tipo argala zen, begi urdina. Ile luzea zuen, eta soinean zeraman arropa estuak areagotu egiten zuen haren argaltasuna. Marinel tankerako niki marradunak janzten zituen gehienetan. Astiro hitz egiten zuen, hitzak ondo ahoskatuz. Irratikoko esatari baten ahotsa ekartzen zuen gogora. Lukasen solaskideari, berriz, Garraiz esaten zioten, eta adin ertaineko gizona zen, berrogei urte ingurukoa. Aurpegian zimurrak nabaritzen zitzaizkion, eta eskuan are gehiago; esku handi zailduak zituen. Erdi burusoila zen, baina bizarrarekin konpentsatzen zuen buru gaineko hutsunea. Bizarra zuritzen hasia zitzaion, baita bekainetako ilea ere. Euskaldun berria zen, eta euskaraz egiten saiatzen bazen ere, askotan gaztelerara jotzen zuen esan nahi zuena zehaztasunez esateko. Auzoko paper-denda batean lan egiten zuen, eta idazle gaiei eta aprobetxategiei paper-sortak, bolalulmak, borragomak, hiztegiak eta horrelako gauzak oparitzen zizkien. Ez dakit opari haiek bere patrikatik ordaintzen zituen edota dendako nagusiari ezer esan gabe hartzen zizkion.

Aurkezpenak egin eta gero, Garraiz galdezka hasi zitzaidan, zertan aritzen nintzen eta horrelako gauzak. Esandako gehienak egia ziren, baina tarteka gezurren bat ere sartu nuen. Asmo txarrik gabe. Besteak inpresionatzeko ziurrenik, interesgarriarena egiteko. Nik ez nuen haien curriculumik. Ez

nuen ezer argitaratua, ez nuen musika talde batean jotzen, ez nintzen inor. Ikasle ziztrin bat baino ez. Anbizioz betea, hori bai. Lukasek zer testu mota idazten nuen galdetu zidan. Duela gutxi idatzi nuen ipuin bati buruz hitz egin nion, amnesia jeta zegoen tipo bati buruzkoa. Arretaz entzuten zuela iruditu zitzaidan. Galdera batzuk ere egin zizkidan pertsonaiei buruz. Gero, gaiak beste egin zuen. Lukasek kontzertu bat zuen hurrengo larunbatean *Zulon*. Ea joan nahi genuen. Dohainik zen. *Lore Hilakekoekin* jo behar zuen. Maketa bat grabatzeko puntuan zeuden.

–Ezagutzen *Nirvana*? Horiek bezala jotzen dugu. Edo jo nahi dugu, behintzat. Baina euskaraz.

Barrezka hasi zen.

–*Come as you are*, motel! –gehitu zuen gero–. Hori da gure leloa. Ezagutzen Bukowski eta Kerouac?

Ezetz esan nion, ideiarik ez.

–Idazle izan nahi, ba hasi hortik. Fuera erretorikak, eta saka egin gauari. Hor dago benetako zukua.

Ez dakit nork ordaindu zituen Iurgiren eta bion garagardoak. Guk ere botilaren muturretik zurrupatu genuen likido horia. Garagardo gehiago ere izan ziren. Handik puska batera, neska bat bildu zitzaigun: Garazi. Azala bezain beltzarana ilea, eta begiak are ilunagoak begitandu zitzaizkidan. Hasieran, makillajeagatik izango zela pentsatu nuen, baina haren begiak hurbiletik ikustean, kolore hura berezkoa zela egiaztatu ahal izan nuen. Ilea motza zuen, eta kolore biziko soineko bat zeraman. Musu eman zion ahoan Lukasi.

“Garazi”, azaldu zigun Lukasek. Ez zuen besterik erantsi, dena esanda balego bezala, bistara zegoena nabarmenegia

balitz bezala. Hala ere, bi horien arteko harremana bitxia zen. Behin baino gehiagotan ikusi nuen nire begiekin Lukas beste neska batekin kateatzen, batere konplexurik gabe. Eta ez behin bakarrik. Gero, Garazirengana itzultzen zen, ezer gertatu ez balitz bezala. Bazuen zerbait emakumeekin, xarma moduko bat, bere ezaugarri fisonomikoren batengatik zetorkiona. Agian, bere ezpain haragitsuak ziren gakoa, bere ahoaren forma, apur bat kanpora aterea. Kontua da erraz lortzen zuela damak hankaperatzea. Ehiztari paregabea zen kontzertuen ostean; bazekien neska-mota bat hurbilduko zitzaiola, mitomanoa, izarrarekin oheratzeko irrikatzen dagoena, harekin oheratzeko baino gehiago, harekin oheratu dela lagunei kontatzeko irrikatzen dagoena, eta Lukasek ederki baliatzen zuen bere *rockero alternatibo* fama. Tankera horretako pertsona zen, larrua jotzeko rock talde bat sortzen duen horietakoa. Jotzea atsegin zuen, bai musika bai larrua. Aukeran, larrua gehiago. Nolanahi ere, gizonen artean ere bazuen karkisma halako bat. Pertsona buruaskia eta konprometitua ematen zuen, bere buruaz ziur dagoena, baina, aldi berean, aurreikusezina, bat-batekoa, taldean nahiz bakarka ondo moldatzen diren horietakoa. Lukas lagun batekin bizi zen alokatutako pisu batean. Errentako dirua erdibana ordaintzen zuten, baina bizitza bereziak eramaten zituzten gainerakoan.

Garazi, aldiz, idazle-gaia zen. Hainbat aldizkaritan argitara emanak zituen bere testuak. Hiruzpalau egile aipatu zizkidan. Horiek ere ez nituen ezagutzen.

–Ezer argitara eman nahi baduzue, esadazue –eskaini zuen bere burua–. *Pikutan* aldizkariko zuzendaria laguna dut.

Ez nuen aldizkari hura ezagutzen, baina prest nengoen edonon argitaratzeko. Hastea zen kontua. Iurgik ez zirudien interesatuegia.

–Lehiaketetara bidali duzu ezer? –galdetu zidan.

Gezurra esan nion. Ezetz, ez nuela ezer bidali, lotsa ematen zidala, nire buruarengan segurtasun falta nuela. Bien bitartean, buruz saiatu nintzen nire ipuinetakoren bat zenbat lehiaketetara bidali nuen kalkulatzeko. Zenbaketa egiteko bi eskuetako behatzak motz geratzen zitzaizkidan. Garazi lehiaketa pare bat irabazitakoa zen. Potoloetakoak gainera.

–Epaimahaiarekin zortea edukitzea da kontua –argitu zidan.

Garazik kazetaritza ikasketak bukatu berriak zituen, eta praktikak egiten ari zen ETBn. Moleskine blok bat eramaten zuen aldean, eta, tarteka, gauzak idazteari ekiten zion, baita goizeko ordu txikietan ere. Hizketaldi baten erdian, eten bat egin, eta zirriborroka hasten zen. Ateraldi irudimentsuak edo xehetasunak apuntatzen zituen, gero testuetan erabili ahal zituenak. Batzuetan, ez zuen ematen gurekin batera zegoenik, gure arteko bat zenik, segika genuen kazetari bat baizik, paparazzi bat alegia. Inguruko guztia begi zorrotzez jotzen zuen, begien aurrean zuenari beste zentzu sakonago bat atera nahi balio bezala, gutako inork ikusten ez zuena. Garazi, literaturaren yonkee bat zen; ni, berriz, noizbehinkako esnifatzaile bat. Garazirentzat idaztea helburu bat zen, ez bitarteko bat. Nire kasuan, ez nuen oso garbi. Bitxiki, Garazi eta Lukasen arteko harremanak aurkako poloen erakargarritasunaren teoria frogatzen zuela iruditzen zitzaidan. Erabat ezberdinak ziren.

–Baduzu haxixik? –galdetu zion Lukasek Iurgiri.

Iurgik ezezkoa egin zion buruarekin.

–Akaso, Oscarrek –Iurgiren bizilagunak, alegia.

–Bale, igual gero pasako naiz harenetik –adierazi zuen gitarra-jotzaileak.

Garraiz Oteiza ezagutu zuenekoaz hizketan hasi zen. Duela urte batzuk, eskultorea berak lan egiten zuen dendara sartu zen koaderno baten bila. Garraiz txundituta zegoen, eta ezin zituen begiak eskultorearen eskuetatik kendu. Esku haiek eman zieten forma Arantzazuko basilikako hamalau apostoluei, eta, une hartan, esku zaildu haietatik txanpon batzuk jasotzen ari zen bera. Sentsazio arraroa zen, arrunta eta jaso aaldi berean. Seguru koaderno erosi berri hartan zerbait idatzi edo marraztuko zuela eskultoreak, eta, hala, bien artean konexio moduko bat zegoela esan zitekeen. Oteizari kanbioak ematerakoan, kirioak airean, zerbait esan nahi izan zion Garraizek, baina ez zuen hitzekin asmatzen. Oteizaren poema pare bat zuen gogoan, baina hitzek ez zuten ahorako biderik topatzen, ezta ezta trabatuta geratu zitzaizkion. Eskultorea bazihoala, “*Quosque tandem...!*”, bota omen zion Garraizek. Berehala damutu zen. Zergatik ez zitzaion ateraldi irudimentsuago bat bururatu? Horrelako pertsonaiak ez ziren egunero dendatik igarotzen. Oteizak barre egin omen zuen, eta “nahi duzun arte, Zizeron” erantzun zion.

Garraizek argitu zigunez, *Quosque tandem...!* hura, eskultorearen obra ezagunaren izenburua, Zizeronek idatzitako Lehenengo Katilinariatik sortua zen. Latineko kontu zaharrak, beste garai batekoak alegia. “Noiz arte abusatuko duzu gure pazientziaz, Katilina?”. Oteizaren asmoa euskal arima

hiltzen ez uzteko, hura errespetatu eta errekupearatzeko noiz arte itxaron behar zen oihukatzea zen. Hala ere, Garraizek onartu zuen ez zela estetika haren oso zalea, eta arima eta metafisika kontuek mesfidantza pizten ziotela. Gainera, eskultorea ondo ezagutzen zutenek ziotenez, fedea baino handiagoa zen haren jangura.

Atsegina zen han egotea jende harekin hizketan, orain idazle itxurak egiten orain tragoak hartzen. 90eko hamarkadaren erdialdea zen, eta ez nuen azterketak gainditu beste kezkarik.

Hain zuzen ere, ekainean gainditu nituen azterketak. Ez nota oso apartekin, baina, tira, uda lasaia nuen aurretik. Aitak ez zituen oporrak hartuko abuztura arte. Ama etxeko lanez arduratzen zen. Nire anaia zaharrena jatetxe batean ari zen lanean, sukaldaritza-praktikak egiten. Arreba txikiari hirlabete batzuk falta zitzaizkion UBIIn hasteko. Alde horretatik, nahiko askatasuna nuen. Tarteko semea izaki, gurasoen arreta-fokua ez nuen anaia zaharrenak eta arreba gazteenak bezain gainean izaten. Uda hartan alferkerian ibili nintzen: hondartzara bainatzera joan, itsasoan igerian aritu, irakurri, kontzertuetara joan, kanpaia jo, han-hemenka ibili, norabide jakinik gabe... Tarteka, Krapulatik pasatzen nintzen. Hango familia ere gizenduz zihoan: Lukas, Garraiz, Garazi, Belatza, Joana... Gehiago ere baziren; gehienak, auzokoak. Ez ditut denen izenak gogoratzen. Familiako patriarka ere ezagutu nuen: Saul. Gizon bizarzuria zen, marinel kapela zeramana, urdin ilun kolorekoa. Berrogeita hamabost bat urte edukiko zituen. Ez dakit zer sari irabazitakoa zen, eta sariari esker poema liburu bat eman zuen argitara 70eko hamarkadan Andaluzia aldean. Geroztik, lauzpabost liburu eman zituen argitara hainbat argitaletxetan. Argitaletxe txikiak denak ere.

Batzuek *El Neruda* esaten zioten, hura zelako, entzutez bada ere, ezagutzen zuten poeta bakarra. Garraizek behin baino gehiagotan aitortu zidan Saulek ez zuela merezitako osperik jasotzen, baztertua zegoela, Celaya eta Blas de Otero ezagutu zituela, hiriko idazlerik handiena zela. Saulek gazteleraz idazten zuen. Hango gehienek hala egiten zuten. Nik euskaraz idazten nuen, inertziaz. Euskal filologia ikasten ari nintzen, eta kontzientziaren harra ere hozka neukan. Ikastola garaian ikasiak nituen Atxaga, Sarrionandia, Mirande, Aresti... Fakultatean ere egile euskaldunak izaten genituen hizpide. Batzuetan, ez dakizu zergatik hartzen dituzun erabaki jakin batzuk. Bulkada bati eta ez arrazoiari jarraiki ziur asko. Gerora, hartutako erabakiak argudiatzen saiatzen zara, arrazoiak hartaratuta hartu dituzula zure buruari sinetsarazteraino. Baina erabakien atzean zerbait irrazionala eta zehaztugabea egon ohi da, ihes egiten digun zerbait. Nik euskaraz idaztea erabaki nuen, liburu gehienak erdaraz irakurtzen banituen ere. Ez zen abertzaletasun kontua. Edo agian, bai, inplizituki edo subkontzienteki bada ere. Hizkuntza gutxituarekiko enpatia moduko bat zen, Robin Hood sindrometik ere bazuena. Orduan, ideia asko zebilzkidan buruan jiraka, baina haietako gutxi ziren benetan nireak; gehienak heredatuak ziren, inguruan zebiltzanak, ohiturazkoak, eszenografia ezagun halako bat. Ideiak eta dekoratuak gauza bat eta bera ziren, substantzia bat eta bera. Eta ni substantzia hartaz elikatzen nintzen oharkabeki, eta hartaz zenbat eta gehiago elikatu, orduan eta integratuagoa nengoen dekoratuan. Apaingarri baten pare. Edo bestela esanda, zenbat eta gehiago elikatu hartaz, orduan eta gutxiago nintzen “ni”. Hogeita bat urteko abertzale batez

espero zitekeena nintzela esan liteke, baina, era berean, ez nuen hura atsegin. Ez nuen “espero zitekeena” izatea atsegin, ez nuen inoren ez ezeren apaingarri izan nahi, eta gauzak kokolan jartzea kirol bihurtu zen niretzat, halako moldez, non gozatu egiten bainuen eztabaidak korapilatzen eta besteen aurka eginez. Batez ere, harridura edo sumindu aurpegia jartzen zutenean nire argudioak entzunda.

Nire familia kontserbadore samarra zen, beti alderdi berari botatzen dion horietakoa. Bihotz oneko jendea, jatorra eta hori guztia, baina aurrikusgarria eta erretxina formaltasunarekin. Anaia zaharrenak gurasoen bide bertsua zeraman. Ez zitzaizkion politika kontuak gehiegi interesatzen, eta boto eskubidea izan zuenetik, “etxeko alderdia”ri eman zion boza. Alde guztietatik begiratuta, pertsona pragmatikoa zen, bizitzaren zentzuaren kontzepzio argia zuena: lan egin dirua irabazteko, eta dirua irabazi ahalik eta ondoen bizitzeko. Gainerako kontuak, literatura, zinema, musika, filosofia... erabat bigarren mailakoak ziren harentzat. Are gehiago, soberan zeuden, bere helburu nagusia lortzeko oztopoak baizik ez ziren heinean. Bazen, ordea, lehen mailako beste gauza bat harentzat: futbola. Eta bazuen teoria bitxi bat. Haren ustez, Reala ligan ondo joateak eragin zuzena zuen probintziaren produktibitate mailan. Sailkapenean zenbat eta gorago Reala, orduan eta gehiago eta gusturago lanean ari gipuzkoarrak. Hala zenez, zentzuzkoa zen Foru Aldundiak diru publikoa fitxaketetan gastatzea. Fitxaketa horiei esker golak erruz sartzen zituen aurrelari bat fitxatzerik bazegoen, probintzia osoak astelehenero lanera umoretsuago joanez erantzungo zuen. Alferrik zen gai sozialetan sosak gastatzea, horrek ez zuen inolako etekinik eragiten.

Gorkak, nire anaia zaharrenak, mespretxu airez begiratzten zidan idazle izan nahi nuela esaten nuen bakoitzean.

–Idazle? Zenbatek irakurtzen dute?

–Gaitasuna dutenek.

–Ez izan babolioa! Futbol zelaiak lepo daude –hasi zitzaidan grinatsu lezioa ematen anaia–, jendeak ez du beste hizketa gairik. Nori interesatzen zaizkio liburuetako txorakeriak?

–Ez dira txorakeriak.

–Ez gaituzte ezertan laguntzen. Bueno, bai, buruak txoriz betetzen.

–Zu bezalako buru zaku hutsekin alferrik da. Popatik!

–Sutu gabe, anaiatxo. Izan gaitezen serioak: zer aporteratzen dio gaur egungo pertsona bati Kixotea irakurtzeak? Are gehiago, liburu horren irakaspena ezin garbiagoa da: asko irakurrita, burua pitzatzen zaizu.

–Nola dakizu hori liburua irakurri ez baduzu?

–Telebistako seriea ikusi nuen. Zuk bezala, listillo! –xaflada bat eman zidan sorbaldan–. Jendea futbolarekin kateatuta dago, hori da errealitatea.

–Jendeak zainetik sartzen duela esan nahiko duzu. Total, hogeita bi lelo baloi baten atzetik korrika...

–Lelo horiek milioiak kobratzen dituzte. Mundu guztiak egon nahi du haien larruan. Haur guztiak izan nahi dute futbolari.

–Ba nik, ez. Nik frankotiratzailea izan nahi dut, futbolari guztiak akabatzeko.

–Ez izan ahoberoa.

Anaiak xafrika egin zidan berriro ere bizkarrean, bere nagusitasuna berretsi nahiz bezala.

–Zuri “berezia” rena egitea gustatzen zaizu, Perutxo. Baina hobe garaiz desengainatzen bazara, zu ere besteak bezalakoa zara. Lehenago edo geroago, denak zulora.

Ipurditik kiloka sartuko niokeen pragmatismo nazkagarrri hura. Baina, onar dezadan, txokolate tarta paregabeak prestatzen zituen, ezpainak miazkatzeko modukoak. Hori bai, oso gutxitan sukaldatzen zuen etxean, jate txeko praktikalaneekin bazuen eta nahikoa.

Arreba gazteak, Oihanek, nire antz handiagoa zuen, eta ulerberagoa zen nire asmoekin. Idazle izatera animatzen ninduen, eta anaia zaharrenari jaramonik ez egiteko aholkatzen zidan.

–Begira, bere teoria guztiekin, sukalde zulo batean sartuta igarotzen du eguna –esaten zidan arrebak–. Maisua da besteei lezioak ematen, baina berari ez litzaioke gaizki etorriko lezio batzuk hartzea.

Hiru anai-arrebotatik Oihane zen lotutasun gutxien zeukana. Irakurtzea atsegin zuen, baina ez genituen liburu berberak irakurtzen. Hark fantasiako liburuak atsegin zituen; nik, berriz, errealistagoak.

Nolanahi ere, azken aldian ideia berrietara irekitzen hasia nintzen. Hilabete batzuk atzera, Nietzscheren eta Bakuninen liburu bana irakurri nuen. Gero, *Manifestu komunista*: “Langileek ez dute aberrik”. Jendeari kontra egiteko argudioak ikasten eta neureganatzen ari nintzen, nire dialektika aberasten. Gozatu egiten nuen jendearengan eragiten nuen durduzadurarekin, “hori ez duzu serio esaten!” eta antzekoak entzuten nituenean. Nire xalotasunean, liburuen bidez gauzak alda zitezkeela uste nuen, eta harrotasun puntu

batez aitortzen nion nire buruari irakurtzeak besteen gaine-
tik jartzen ninduela. Saulek esan zidan paradoxikoa zela,
Nietzsche eta Bakunin ia aldi berean irakurtzea. Antitetikoak
omen ziren.

–Bakunin jainkorik gabeko kristau bat da. Anarkista.
Nietzschenk jainkoa hil zuen, baina gorroto zuen mentalitate
judeo-kristaua.

Batzuetan, ez nion erabat harrapatzen Sauli, baina atse-
gin nuen hura entzutea. Anarkistez eta kristauez ari ginela,
Bergamín idazleari buruzko pasadizo bat kontatu zidan. Ber-
gamín poeta kristaua eta komunista zen aldi berean, eta esa-
ten zuen prest zegoela heriotzara arte komunistekin joateko,
“baina hortik aurrera, norberak egin dezala bere bidea”. Sau-
lek Hondarribian ezagutu omen zuen Bergamín. Hari zor ge-
nion Lorcaren *Poeta en Nueva York* argitaratu izana. Fusila-
tua izan baino lehen, Lorcak poema-liburuaren eskuizkribua
utzi zion Bergamíni bulegoan, zuzenketa eta zirrimarrekin eta
ohar batekin: “Zu ikustera etorri naiz, baina uste dut bihar
itzuliko naizela”. Poeta ez zen gehiago itzuli. Granadara alde
egin zuen, han salbu egongo zelakoan. Egoerak atzera buel-
tarik izan ez zuenean, Bergamínek, Errepublikaren Kultura
Batzordearen buru zenak, erbesterako bidea hartu zuen Lor-
caren eskuizkribua aldean zeramala. Frantziara joan zen au-
rrera, Mexikora hurrena. 1940an eman zuen argitara. Laua-
xetarekin gogoratu nintzen. Bitxiki, eragin handia izan zuen
Lorcaren poesiak bizkaitarrarengan, batez ere *Romanceroak*.
Patu berbera partekatu zuten fusilatze taldearen aurrean.
Arma, tiro, pum... Irakasle gogaikarri baten ahotik entzuna
genuen istorio hura. Gainera, azterketan “Lauaxeta” egokitu

zitzaigun. Uste dut ekaineko txandan gainditu nuela. Saulek esan zidanez, gutxik zekiten Lorca Donostiako Ateneoan izana zela 1936ko martxoan, *Romanceroko* poemak irakurtzen.

–Nire aita entzuleen artean zegoen! –gehitu zuen harro. Gero, Bergamíni buruzko azalpen gehiago eman zizkidan.

–Gizon miresgarria, printzipioak serio hartzen zituena, eskuzabala. Jada ez dira horrelakoak geratzen –argitu zuen miresmenez.

–Zu... –hasi nintzen esaten Saul lausengatu nahiz. Irribarre mingotsa marraztu zitzaion.

–Oker zaude. Ni ez naiz hura bezalakoa. Diktadura garaian ez nuen dominarik jartzeko moduko meriturik egin. Ni poeta naiz, besterik ez. Ez dut beste ezertarako balio.

Hitz horien atzean enigmaren bat zegoela begitandu zitzaidan, baina ez nintzen kontu harekin tematu. Saulek ez zuen kontu hartaz zehaztasun gehiegi emateko gogorik. Krapulako bezero beteranoenetakoa zen, patriarka, eguzki moduko bat. Planetak haren orbitaren inguruan jiraka zebiltzan. Tertuliak antolatzen zituen, irakurraldiak, liburuak uzten zizkion jendeari... Hark bai sinesten zuen liburuek gauzak alda zitzaizkela, beste belaunaldi batekoa zen, belaunaldi erromantikoago batekoa, eta uste hari nola edo hala eutsi zion denboran zehar, orain intentsitate gehiagorekin orain gutxiagorekin, baina fedea guztiz galtzera inoiz iritsi gabe. Krapularen sarrerako atean eskuz egindako kartelak jartzen zituen, tertulia literarioak iragarritz. Jende dezente biltzen zen tertulia haietara, liburuak irakurritakoak eta irakurri gabekoak.